

## Oma-Basondo Kortezubi

# PR -BI 180

## Edertasun handiko haranetatik. Por los valles encantados.

| Km | (desnivel) | (tiempo) |
|---|---|---|
| 6 | 200m | 1h 30' |

1 ⚠ 2 2 2







Basondo eta Oma haranetatik paseatzea iraganera bidaiatzeko eta baserriari lotutako bizimodua izan zenaz eta denaz gozatzeko modu bat da.

Gida hau editatu den egunean, itxita dago Omako Basoa. Informa zaitez!

*A fecha de edición de esta guía el Bosque de Oma se encuentra cerrado. ¡Infórmate!*

*Pasear por los valles de Basondo y Oma es una forma de viajar al pasado y disfrutar de lo que fue y es la forma de vida vinculada al caserío.*










1982an Ibarrola Omako Basoa margotzen hasi zenean, bazekien iritsiko zela lana itzaltzen joango zen eguna, bere mihisea, basoa bera, zahartu ahala... Hau da Land Art-eko obren liluragarritasuna, gehienak iragankorrak direla eta hauek bizitzeko esperientziak iraungitze-data duela. Gaur egun, ezin da artelan handi hau bisitatu, eta, beraz, Basondo eta Oma haran bukolikoetan barrena bidegorritik joan-etorriko ibilbide bat egitea proposatzen dugu, Lezika baserritik abiatuta eta baso-pista saihestuz.

Gozatu haranaren lasaitasunaz, baserrien edertasunaz, larreez, baratze txikiez eta etxe handi horiei lotutako eraikinen aniztasunaz, hala nola zubiak, lastategiak, auzo-eskolak, baselizak, karobiak, errotak...

Joan haraneko bidean barrena eta ondoren Bolunzuloko errotarara, non Oma ibaia kareharrizko mendiaren azpian galtzen den, eta Olakoerrota eta Goikoleara, haranaren ekialderago dagoen eremura, Kortezubik Nabarnizko behealdearekin muga egiten duen tokira.

Cuando en 1982 Ibarrola comenzó a pintar el Bosque de Oma sabía que llegaría el día en el que la obra se iría apagando, a medida que su lienzo, el propio bosque, envejeciera... Es lo fascinante de las obras de Land Art, la mayoría son efímeras y la experiencia de vivirlas tiene fecha de caducidad. Actualmente, no se puede visitar esta gran obra de arte, por lo que proponemos realizar un recorrido de ida y vuelta por el bidegorri a través de los bucólicos valles de Basondo y Oma, partiendo del caserío Lezika y eludiendo así la pista forestal.

Disfruta de la tranquilidad del valle, de la belleza de sus caseríos, sus pastos, sus pequeños huertos y de la diversidad de la construcciones vinculadas a estas grandes casas, como los puentes, los pajares, las escuelas de barriada, la ermita, los caleros, los molinos...

Recorre el camino del valle y acércate al molino de Bolunzulo, donde el río Oma se esconde bajo el monte calizo, y a los de Olakoerrota y Goikolea, en la zona más al este del valle, donde Kortezubi limita con la zona baja de Nabarniz.

plana

## eta gero...
## y después...

Zatoz Santimamiñeko interpretazio-gunera. Gozatu kobazuloko bisita gidatuez eta ezagutu antolatzen dituzten jarduera bereziak, iraganera bidaiatzeko aukera izateko, lehen bizileku haietan nola bizi ziren ulertu edo ikerketa arkeologikoaren ildoak ezagutzeko, Aita Barandiaranengandik gaur egunera. Deitu eta egin erreserba aurretik.

Atsedenleku zabala dago Santi Mami baselizaren inguruan. Bertan atseden hartzeko eta egun lasaia igarotzeko aukera izango duzu.






Acércate al punto de interpretación de Santimamiñe. Disfruta de las visitas guiadas a la cueva y descubre las actividades especiales que organizan, permitiéndonos viajar al pasado, comprender cómo vivían aquellos primeros moradores o conocer las líneas de investigación arqueológica, desde Aita Barandiaran a la actualidad. Llama y reserva con antelación.

Una amplia área recreativa se extiende en torno a la ermita de San Mamés (Santi Mami), donde podrás descansar y seguir disfrutando de la tranquila jornada.